

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua funtziona dezan, zenbait baliabide ezberdinetaz baliatuko gara. Haien artean garrantzitsuena baliabide fisiko nagusia izango da: kamioiak.

Hauekin hasteko, Ikerrek bere familia-enpresako lau kamioien ekarpena egingo du.

Proiektua zuzentzeko, Gorkak aurretik daukan bulego bat jarriko du eta bertan erabiliko ditugun materialak guk geuk ere proportzionatuko ditugu. Leirek lan egingo dugun ordenagailua jarriko du eta, bertan bazkideen galderak edo kezak argituko ditugu euskoyotes@gmail.com korreoaren bitartez.

Izan ere, baliabide intelektualak eta giza baliabideak ere beharrezkoak izango dira konposta sortzeko orduan eta saltzeko orduan batez ere.

Konposta sortzeko ezagutza basikoak baino ez dira behar, azken finean, baserri askotan burutzen den gauza da.



Saltzeko momentuan, publikoarengana zuzentzeko gaitasuna garatu behar dugu, gure proiektuaren beharraz jendea ohartzeko. Honetaz Erik arduratuko da, enpresaren aplikazioa eta web orria sortuko duen bazkidea, salmenta gaitasunak ere dauzka.

Finantzia baliabiden inguruan, guk aurreztuta daukagun dirua jarriko dugu. Hasiera batean 6000 euro inguru.